Memoria
2015-2016
Donostiako Emakumeen Etxea

Donostiako Emakumeen Etxea

Memoria
2015-2016

2015 eta 2016 ikasturteko memoria.
Donostiako Emakumeen Etxea.

Edizioa, maketazioa eta diseinua: Kalaka komunikazio parekidea
Argazkiak: Itziar Bastarrika
Inpresioa: Lankorpe
Donostia 2016

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA ELKARTEA
ASOCIACIÓN CASA DE LAS MUJERES DONOSTIA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna
Igualdad

Aurkibidea

7 Aurkezpena

8 Emakumeen etxea

9 Datu orokorrak

10 Hobekuntzak

11 Zerbitzuak

13 Proiektuak

15 Formakuntza

27 Ekintzak

Aurkezpena

Emakumeen Etxea

Emakumeen Etxea 70. hamarkadatik aurrera Donostiako mugimendu feministaeta emakume elkarteen aldarrikapen historikoa da.

Emakume elkarte, mugimendu feminista eta Donostiako Udalaren arteko prozesu parte hartzaile baten ondorioz sortu zen Emakumeen Etxea, ateak 2010. urte bukaeran ireki zituelarik. Aipaturiko prozesu honek, Emakumeen Etxea Elkartea eta Udaleko Berdintasun Sailaren arteko kudeaketa mistoa duen eredu aitzindari bati bide eman dio.

Emakumeen Etxea, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean, gogoeta egiteko, esperientziak eta konplizitateak elkartrukatzeko, pentsamendua ekoizteko eta kolektiboki aurrera egiteko elkargune bat da.

Etxea, erreferentziazko gune bat da udalerriko emakume guztientzat eta baita Lurralde Historikoko eta Autonomia Erkidegokoentzat ere.

Datu orokorrak

Bisita kopurua: **53.682**
Hileroko bataz bestekoa: **2.822**
Eguneko: **95**
Elkarteko bazkide kopurua: **600**

Etxean egiten diren ekintzen berri eman da:

- Donostiako Gizarte Zerbitzuak auzoetan dituzten bulegoetan, GLUZ (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua) eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arreta Zerbitzuan, azken hauekin bereziki elkarlan eta harreman estua dugu.
- Donostiako Udaleko Kultur Etxeetan eta Gaztelekuetan.
- Gaztetxeetan
- Martuteneko kartzelan
- Donostiako Anbulategietan eta Osasun Mentala, Osakidetza
- Gipuzkoako Itxaropen telefonoa
- Gurutze Gorria Gipuzkoa
- Gizarte bazterketa eremuan, adin txikikoekin, emakumeekin, etab. lan egiten duten erakundeetan
- Emakumeen Etxea Elkarteko bazkideen artean
- Euskara Sailean

Formazioak eta lan taldeak:

- Gipuzkoako Berdintasun sarea
- Puntu Kritikoak
- Zaintza Taldea
- Bertsolaritza eta Generoa
- "Trabajar el Mainstreaming" ikastaroa
- Udaletxeko Formazioa Berdintasunean
- Hirigintza eta Generoa ikastaroa
- Formazioa- Aurrekontuak genero ikuspegitik (udala)
- Formazioa- Inmigrazioa eta Emakumea

Sukaldea: programaziorako gunea. Bilera kopurua: 4
Kogestio bilerak, 2015: 4, 2016: 3.
Gizarte zerbitzuekin koordinazioa eta deribazioa.

Emakumeen Etxeko hobekuntzak

Dekorazioa:

Etxeko paretak margotu ditugu.

Komunikazioa:

Egitaraua, hileko orria eta zerbitzuen orriaren diseinua aldatu ditugu.

Zerbitzuak

Biluzik mundura

Sexu eta generoaren inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzen dute astean behin Biluzik Mundurako adituek. Gipuzkoako gazteek (14-35 urte bitartean) Biluzik Mundura zerbitzua erabili dute aholkuak eskatzeko, zalantzak argitzeko eta zerbitzuaren funtzionamendua ezagutzeko. Zerbitzu hau erabili duten gehienak ikasleak dira.

Parte hartzaileak: 147
Hizkuntza: elebiduna
Iraupena: urte osoa, abuztua izan ezik
Egilea eta antolatzailea: Lahia Nahia Elkartea

Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea

Astean behin Emakume Bananduen Elkarteak eta Arrats Elkarteak emakumeei informazioa eta aholkularitza juridikoa eskaintzen diete, beren zalantza edota gatazkei aurre egin ahal izateko erreminta legalak izan ditzaten.

Parte hartzaileak: 439
Hizkuntza: elebiduna
Iraupena: urte osoa, abuztua izan ezik
Egileak eta antolatzaileak: Emakume Bananduen Elkartea eta Arrats Elkartea

Norbanakoaren jabekuntzarako gunea

Astean behin, psikologa profesional batek lagunduta, aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortzeko gunea da.

Parte hartzaileak: 340
Hizkuntza: elebiduna
Iraupena: urte osoa, abuztua izan ezik
Egilea: Maite Santamaría
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Jabetze taldeak

Talde dinamika desberdinen bidez, indarkeria bizipen desberdinetatik igarotako emakumeek autoestimua elkarren arteko laguntza, etab. lantzen dituzte.

Parte hartzaileak: 55
Hizkuntza: gaztelania
Iraupena: urri erdialdetik aurrera, abuztua izan ezik
Egilea eta antolatzailea: Aizan Elkartea

Ikasketak homologatzeko kanpaina

Atzerrian eginiko ikasketak balioztatzeko informazioa eskaintzen du elkarteak astean behin Emakumeen Etxean. Izapideak egiteko eman beharreko pausuak, etab. azaltzen dizkiete bertaratutakoei.

Parte hartzaileak: 204
Hizkuntza: elebiduna
Iraupena: urte osoa, abuztua izan ezik
Egilea eta antolatzailea: Bidez Bide Elkartea

Proiektuak

Emakume etorkinen kulturaniztasun taldea:

Gune hau jatorri desberdinetako emakumeentzat sorturiko aisialdi gunea da. Helburuak: elkar ezagutzea, osasun fisiko eta emozionala hobetzea, zubiak eraikitzea eta sarea sortzea, ongi pasatzea eta baliabide desberdinez informatzea da. Kanpotik etorritako emakumeei zuzenduta dago eta astean behineko maiztasuna du.

Parte hartzaileak: 103
Hizkuntza: gaztelania
Iraupena: urte osoa, uztaila eta abuztua izan ezik
Antolatzaileak: Berdintasun eta Kulturaniztasun Sailak eta Garaipen Elkartea
Dinamizatzailea: Beatriz Zalakain

Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak

Edozein indarkeria egoera igarotako emakumeei laguntza eskaintzeko gunea da. Helburua, taldean, indarkeria bizipenen bat izan duten emakumeek euren beldurrak, hausnarketak, zailtasunak, etab. lantzea da dinamika parte hartzaileen bidez.

Parte hartzaileak: 68
Hizkuntza: gaztelania
Iraupena: urte osoa, uztaila eta abuztua izan ezik
Antolatzaileak: Berdintasun Saila eta Garaipen Elkartea
Dinamizatzailea: Ana Murcia

Formakuntza

Irakurle eskola feminista

Iratxe Retolaza

Pentsamendu feministan arakatzea izango dugu helburu eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai. Horretarako, hainbat irakurgai landu eta horien inguruko gogoeta egingo dugu, betiere diskurtso feministek zabaldu dituzten bidezidorretan ibiltzeko asmoz.

Parte hartzaileak: 15
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Bideogintza

Itziar Bastarrika

Bideogintzaren prozesu osoa landuko dugu: ideia, honen garapena -gidoia-, grabaketa, muntaia eta edizioa. Ideia batean oinarrituz talde lanean arituko garen arren, bakoitzak bere istorioa lantzeko aukera izango du. Azken lana 5 istorio batuko dituen 10 minutuko bideo muntaia izango da.

Parte hartzaileak: 5
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Mugimendu tailerra

Artaziak: Ana Revuelta eta Amaia Nabaskues

Tailer honetan gorputzak izango dira protagonistak eta diren bezalakoak izateko askatasuna izango dute. Esperimentaziorako, hausnarketarako, sormenerako eta plazerrerako espazioa sortuko dugu. Gorputzen eraikuntzaren inguruko hausnarketak batzuetan gure gorputzetatik abiatuko dira mugimendu dinamiken bitartez, eta besteetan testu edo arte lan batzuen bidez.

Parte hartzaileak: 10
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Diseinu tailerra: GIMP programa

Ana Maiz

Tailerraren helburua GIMP programak, Photoshop ezagunaren baliokideak software librean, eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta irudi digitalaren edizioan trebezia lortzea da. Irudiak moldatu, handitu, txikitu, konbinatu eta konposaketa berriak sortuko ditugu edozein formatutan medio ezberdinetan erabili ahal izateko.

Parte hartzaileak: 6
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Kosmetika naturala

Alaitz Mañes
Eva Mena

Egunerokotasunean erabiltzen ditugun produktuak egiten ikasiko dugu. Ekologikoak eta naturalak diren lehengaiak erabiliz aurpegiko eta eskuko krema, jaboia eta ezpainetako baltsamoa egingo ditugu. Horretaz gain, sendabelarrak ezagutu eta ukenduak egiten ikasiko dugu.

Parte hartzaileak: 12
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Xake

Xakera estrategiaz jokatzen ikasteko gune irekia da tailer hau. Bertan prozesu eta norberaren momentuak kontuan izanik, xakera jokatzen ikasteko lekua da.

Julia Gallego

Parte hartzaileak: 30
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Feminismoaren historiak. XX. mendetik gaur egun arte

Emakumeen historian oinarritutako ikastaroa da hau: XX. mendetik gaur egun arte. Feminismoen jatorriak, sufragistak, lehen eta bigarren olatuko feminismoak, etab. ikasiko ditugu.

María Castejón

Parte hartzaileak: 12
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Antzerkia

Aitziber Eguskiza

Parte hartzaileak: 7
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Antzerki teknika introspektiboak -zapalduon antzerki eta gestalt-antzerki metodologia- erabiliko ditugu. Genero zapalkuntzak identifikatzeko ariketak, sormenerako talde dinamikak eta pertsonaiak lantzeko metodologia ezberdinak erabiliko ditugu. Guzti hau norberaren jabetze prozesu feministan eta bakoitzaren gorputzarekiko harremanean sakontzeko ezinbestekoa izango da.

Sexualitatea euskal literaturan

Iratxe Retolaza

Parte hartzaileak: 8
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Udaleko Berdintasun Saila

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, sexualitate(ar)en eraikuntzaren eta errepresentazioaren inguruko hausnarrera bilduko den begirada; eta bestetik, begirada feminista. Bidegurutze horretan, literatura eta sexualitatearen inguruko diskurtsoen arteko gogoeta bideak zabaltzea izango da helburua, ikuspegi feminista abiapuntutzat hartuz.

Gure genealogia feministak

Feminismoa zer den irakasteko gune bat izango da, historian zehar emandako joera garrantzitsuenak ikasteko, Euskal Herriko mugimenduaren historiaren ibilbidea aztertzeaz ahaztu gabe.

Emagin

Parte hartzaileak: 6
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Mugimendu tailerra

Tailer honetan gorputzak izango dira protagonistak eta diren bezalakoak izateko askatasuna izango dute. Esperimentaziorako, hausnarketarako, sormenerako eta plazerrerako espazioa sortuko dugu. Gorputzen eraikuntzaren inguruko hausnarketak batzuetan gure gorputzetatik abiatuko dira mugimendu dinamiken bitartez, eta besteetan testu edo arte lan batzuen bidez.

Artaziak: Ana Revuelta Amaia Nabaskues

Parte hartzaileak: 15
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Irakurle eskola feminista

Pentsamendu feministan arakatzea izango dugu helburu eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai. Horretarako, hainbat irakurgai landu eta horien inguruko gogoeta egingo dugu, betiere diskurtso feministek zabaldu dituzten bidezidorretan ibiltzeko asmoz.

Iratxe Retolaza

Parte hartzaileak: 15
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Autodefentsa feminista

Alaitz Mañes

Parte hartzaileak: 13
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Autodefentsaz aritzea eta autodefentsaz ulertzen duguna komunean jarri eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea. Erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzea. Bai indibidualki martxan jarri beharrekoak eta baita kolektiboki eraiki beharreko erantzun, dinamika, alternatibak pentsatzea dugu helburu ikastaro honetan.

Batukada feminista

Arantxa Vicedo
Ainara Sarasketa

Parte hartzaileak: 25
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Emakume guztioi irekia dagoen gunea da. Bertan hainbat musika tresna ikasteko aukera izango duzu, taldean joko dugu eta kaleak era aldarrikatzailean okupatuko ditugu hainbat jaialdi, ospakizun eta jardunaldietan. Elkartrukean ikasiz sareak sortzen ari gara.

Zapalduen antzerkia

Aitziber Eguskiza

Parte hartzaileak: 14
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Norberaren ezaugarri fisiko eta soziokulturalek gure bizimoduari zer nola eragiten dioten ezagutzeko bidea eskainiko digu zapalduon antzerkiak. Bidegabekerien jatorria eta balio hezitzaileak taldean lantzeko bide paregabe eta erakargarria dugu zapalduon antzerkia. Joku eta gorputzaren bidez landutako zenbait ariketa bide, bizipenak aztertzeko eta hauek jokatzeko aukeraren bitartez estruktura zapaltzaileak identifikatu eta elkartasunarako tresnak bideratzen saiatuko gara.

Arte plastikoak

Ustaritz Betelu

Parte hartzaileak: 8
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Hizkuntza grafikoaren, teknika piktorikoen, teknika eskultorikoen, estanpazio tekniken, arte urbanoaren eta land artearen inguruko nozioak ikasteko tailerra da honakoa.

Argazkilaritza

Argazkilaritzaren inguruko teknikak ikasteko, diziplina honen inguruan emakumeek egin duten eta egiten ari diren ekarpenen berri jakiteko tailerra da hau. Zure argazkien kalitatea hobetzeko ezagutzak eskuratuko dituzu, besteak beste. Ikastaro amaieran lan kolektibo bat egiten da.

Itziar Bastarrika

Parte hartzaileak: 7
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Feminismoa ez feministentzat

Feminismoarekin lotuta dauden estereotipoak desegingo ditugu eta feminismoak anitzak eta desberdinak direla ikasiko dugu. Oraingo honetan, XX. mendeko emakumezkoen historia landuko dugu eta orainaldia ere aztertuko dugu.

María Castejón

Parte hartzaileak: 4
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Autodefentsa Feminista

Autodefentsaz aritzea eta autodefentsaz ulertzen duguna komunean jarri eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea. Erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzea. Bai indibidualki martxan jarri beharrekoak eta baita kolektiboki eraiki beharreko erantzun, dinamika, alternatibak pentsatzea dugu helburu ikastaro honetan.

Emagin

Parte hartzaileak: 7
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Begiradak zorroztuz

Iratxe Retolaza

Parte hartzaileak: 7
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Tailer honetan euskal kulturako hainbat ekoizpen eta dinamika taldean irakurri, ikusi, entzun egingo ditugu, elkarrekin horien inguruko gogoeta sustatzeko. Askotariko ekoizpen eta sorkuntzak landuko ditugu: ikus-entzunezkoak (pelikulak, iragarkiak, dokumentalak, pieza artistikoak…), kantuak, testu literarioak, kazetaritza-lanak, ilustrazioak…

Taldeko kantu tailerra

Bettina Aragon

Parte hartzaileak: 60
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Emakumeen Etxeko koru proiektua adin, jatorri eta eskarmentu desberdinetako emakumeen ahotsak batzeko desiotik sortu da. Koru honetan jabetu nahi gara eta kantu koralaren bidez emakumeen osasuna sustatu nahi dugu. Herritartasun desberdinak batu ditugu, jatorri desberdinetako abestiak abestuz.

Autobografiak euskal literaturan

Iratxe Retolaza

Parte hartzaileak: 6
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Berdintasun Saila

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, autobografiaren moldeak eta azpigeneroak aipatuko ditugu; eta bestetik, teoria eta diskurtso feministek autobografiaren inguruan garaturiko ikuspegiak aipatuko ditugu. Bidegurutze horretan, autobografiek euskal literaturan nolako garapena eta lekua izan duten aztertuko dugu, betiere begirada feminista gidaritzat hartuz.

Kartelak GIMP aplikazioarekin

Ana Maiz

Parte hartzaileak: 8
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Tailerraren helburua Gimp programak, Photoshop ezagunaren baliokideak software librean, eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta irudi digitalaren edizioan trebezia lortzea da. Irudiak moldatu, handitu, txikitu, konbinatu eta konposaketa berriak sortuko ditugu edozein formatutan medio ezberdinetan erabili ahal izateko.

"Ventaneras"

Merche Tranche

Parte hartzaileak: 30
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Berdintasun Saila

Emakumeek idatzitako gaztelaniazko literaturaren berrirakurketa.
Mendeetan zehar, ez da izan emakumeentzat mari-bandera edo hitzontzi deitzea baino irain handiagorik. Etxe edo komentuetan itxita bizi zirelarik, leihoa zuten ihesbide eta askabide bakar; eta idatzizko hitzak, berriz, gogamenaren leiho. Haien liburuak dira, orain, gure hormak emakumeei kanpotik barrura begiratzeko eta haiek guri esateko zeukatenarekin egiaz topo egiteko.

Ekintzak

2015

Urtarrila

27: Zineforum feminista

Violette

Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

28: Hitzaldia

Tratu txar psikologikoak bikote harremanean.

Gaztelania
Dinamizatzailea: Gabinete de Psicología Personalizante Belén Casado
Antolatzailea: Belén Casado Mendiluce

28: Jardunaldiak

Sexu eta Ugalketa Eskubideak munduko agenda politikoetan: Kairo+20ri ekarpenak.

Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Medicusmundi Gipuzkoa
Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Otsaila



14: Batu-jira

Heteropatriarkatuaren aurkako batu-jira.

Dinamizatzaile eta antolatzaileak:
Sorginbanda eta Emakumeen Etxea Elkartea

17: Zineforum feminista

The trouble with angels.

Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

20-21: Jardunaldiak

Ekonomia feministaren inguruko jardunaldiak:

- "Finantza arloan proposamen feministak egiten"- Cristina de la Cruz (Fiare).
- "Zer izango ote da ekofeminismoa?"-Ekipare Kooperatiba eta Reas Euskadi.
- Emakumeen Etxeko Banku Denboraren aurkezpena- Emakumeen Etxea.

Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

27: Asanblada

Denboraren bankuaren asanblada irekia.
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

Martxoa

1: Festa

Emakumeen etxeko bostgarren urtemugaren festa.
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

6: Ikastaroa

Problematizaciones desde el feminismo decolonial [Ochi Curiel].
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Haurralde

7: Ikastaroak

El sexo sentido [Natalia Aventin].
Claves para el diseño de intervenciones transformadoras contra la tranfobia [Lucas Platero].
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Haurralde

8: Manifestazioa

"Euskal Herria feminismotik eraikitzen" lelopean.
Antolatzaileak: Euskal Herriko koordinadora feministak

17: Zineforum feminista

Pelo Malo
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

20: Liburu aurkezpena

Diana Pornoterroristak idatzitako "Coño Potens: manual sobre su poder, su próstata y sus fluidos" liburuaren aurkezpen irekia.
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

11, 18, 25 eta apirilak 1, 8, 14, 21: Jardunaldiak

Pertsona zaintzaileen emozioen gestioa.
Dinamizatzaile eta antolatzaileak: Donostiako Gizarte Ongizate Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Apirila

17: Zineforuma

“Dantzan: logros feministas por el derecho a decidir” dokumentalaren estreinaldia.
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Mugarik gabe

18, maiatzak 2, 16, 30 eta ekainak 13, 27: Eskola

Ekonomia feminista eskola
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Mundubat

21: Zineforum feministe

Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

25: Jardunaldiak

Bistaratu mikromatxismoa: jardunaldi irekiak eta sari banaketa.
Dinamizatzaile eta antolatzaileak:
Topatu eta Gaztezulo

Maiatza

6: Mahai-ingurua

Alkategaitzara aurkeztutako hautagaien berdintasun programen aurkezpena.
Elebiduna
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

6: Liburu aurkezpena

Fátima Frutos idazlearen "Epitafio para una odalisca".
Gaztelania
Idazlea eta dinamizatzailea: Fátima Frutos
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

19: Zineforum feminista

Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

21: Asanblada

EMAK asanblada irekia.
Elebiduna
Dinamizatzaile eta antolatzailea: EMAK (Emakume Kirolariak)

27: Asanblada

IV. Emakumeen etxeko asanblada nagusia.
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Ekaina

9: Xake txapelketa

Emakumeen arteko xake txapelketa irekia.
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

9: Ekintza

"Las reglas no son lo nuestro" ekintza eta merendola.
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Mugimendu tailerra

16: Zineforum feminista

Madeinusa
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

19: Denbora bankua

Denbora banku feminista gune irekia.
Elebiduna
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

22: Hitzaldia

Danborrada parekidearen bidean.
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

24: Mahai-ingurua

Sexualitatea bizitzen mahai-ingurua.
Elebiduna
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Koordinadora transmarikabollo

25: Liburu aurkezpena

Itziar Zigaren "Malditas".
Idazlea eta aurkezlea: Itziar Ziga
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Uztaila

3: Aurkezpena

Berrikuntza demokratiko feministak ikerketaren aurkezpena.
Elebiduna
Parte Hartuz ikerketa taldea.
Berrikuntza Demokratiko Feministak proiektuaren lan taldea (Jone Martinez, Igor Ahedo, Zuriñe Rodríguez eta Alicia Suso).

4: Ikastaroa

Autodefentsa feministaren.
Euskara
Dinamizatzailea: Emagin Elkartea
Antolatzailea: Berdintasun Saila

11: Ikastaroa

Autodefentsa feministaren.
Gaztelania
Dinamizatzailea: Maitena Monroy
Antolatzailea: Berdintasun Saila

14: Aurkezpena

Denbora banku feminista aurkezpen irekia.
Elebiduna
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

21: Zineforum feminista

Pride
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

23-25: Jardunaldiak

Lizun ta zikin jardunaldiak. Pospornografiaren edo pornografia feministaren inguruko lehen topaketak Euskal Herrian.
Elebiduna
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Medeak

2015/2016 ikasturtea

Iraila

15: Zineforum feminista

Hombres
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

25: Liburu aurkezpena

María Castejónen "Más fotogramas de género: representación de feminidades y masculinidades en el cine español de los 90".
Gaztelania
Idazlea eta dinamitzailea: María Castejón
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



Urria

6: Hitzaldia

Indarkeria matxista emakume guztiok berdin sufritzen dugu? Menpekotasuna edo aniztasun funtzionala duten emakumeen errealitateak.
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Zaintzaren talde motorea

13, 27 eta azaroak 10: Jardunaldiak

Emakumeen asoziazionismoa prebentziorako iturri gisa, emakumeen elkarteetarako formakuntza jardunaldiak. Hizlariak: Juana Balmaseda, Pilar Legarra eta Aizan elkartea.
Elebiduna
Dinamizatzailea: Aizan
Antolatzailea: Gunea

15: Hitzaldia

Mintzalaguna zer da? Jarri mingaina dantzan. Mintzapraktika taldeak osatuko ditugu Emakumeen Etxeko emakumeekin.
Elebiduna
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Bagera elkartea

Urria

16: Hitzaldia

Denboraren banku feministaren zabaltze hitzaldia.
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

19, 20 eta 21: Zineforum feminista

IV. Jardunaldiak emakumeek egindako zinemaz. Filmak: Not wanted, Outrage eta Never fear / The young lovers.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea
Laguntzaileak: Donostia Kultura, Donostiako Udaleko Berdintasun Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

22: Liburu aurkezpena

Norma Mogrovejoren "Disidentzia sexuala eta hiritartasuna kontsumo neoliberalaren aroan"
Gaztelania
Idazlea eta dinamizatzailea: Norma Mogroviejo

23: Zineforuma

"Ezberdintasunak diagnostikatzen" transfobiaren aurkako ekitaldia.
Elebiduna
Dinamizatzailea: Aitzole Araneta
Antolatzailea: EHGAM
(Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua)

Azaroa



7: Zabalpena

Emakunderen autobusa Alderdi Eder lorategian egongo da Emakumeen Etxeko ekintza eta proiektuak ezagutu ahal izateko.
Elebiduna
Antolatzailea: Emakunde
Dinamizatzailea: Udaleko Berdintasun Saila

7: Xake txapelketa

Emakumeen arteko xake txapelketa.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

12: Bideo emanaldia

Emakumeen Etxeko Bideogintza tailerrak 2014-2015eko ikasturtearen ikasketa prozesuaren emaitza bezala, bideo emanaldi bat egingo du.
Elebiduna
Antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

14: Hitzaldia

Feminismo beltzak
Elebiduna
Hizlaria: Jeanne Rolande Dacougna
Antolatzailea: Garaipen

17: Zineforum feminista

Luna en Brasil
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea



Azaroa

4 eta 18: Tailerra

Sentsibilizazio tailerra eta berriz elkartze familiarra.
Gaztelania
Dinamizatzaile eta antolatzailea: Bidez Bide

18: Zineforuma

Ruda: mujeres indígenas organizadas por una vida libre de violencia en Guatemala.
Gaztelania
Antolatzaileak: Oxfam Intermón eta Pikara Magazine
Laguntzailea: Eusko Jaurlaritza

19: Zineforuma

Emakume surflariak Marokon
Euskara
Dinamizatzaile eta antolatzailea: EMAK (Emakume Kirolariak)

20, 23 eta 24: Jardunaldiak

Indarkeria matxistaren normalizazioa. Hizlariak: Graciela Atencio, Maria Naredo eta Lucía Martínez
Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxeko erasoen aurkako batzordea

20: Solasaldia

Palestinako bi emakumeen elkarteetako zuzendariekin solasaldia.
Gaztelania
Antolatzailea: UNRWA Euskadi

6, 20, 27 eta 30: Ikastaroa

Pertsona zaintzaileen emozioen gestioa.
Gaztelania
Antolatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia
Dinamizatzailea: Matia Fundazioa
Laguntzailea: Donostiako Udala

Abendua

3: Jardunaldiak

Motibaziorako bidea. Hizlariak: Sylvana Jimenez, Elixabete Eizaguirre, Isabel Jimenez eta Oihulari Clown taldearekin amaiera ekitaldia.
Elebiduna
Antolatzailea: ROMI BIDEAN
Emakume Ijito eta Paien elkartea

5: Hitzaldia

Atzerritarrei buruzko legea eta etxeko langileen erregimen berezia.
Gaztelania
Antolatzailea: Munduko Emakumeak

12: Festa

Nire lurraldea gogoratuz, besteen kultura partekatuz.
Antolatzailea: Munduko Emakumeak

14: Mahai-ingurua

Hauteskunde Orokorren aurrean, alderdi politikoen ordezkariek berdintasun politikei buruzko proposamenak eta indarkeria matxistaren aurrean agertzen duten konpromezua azalduko dute.
Elebiduna
Antolatzailea: Plazandreok

14: Zineforuma

Esperientzia lesbiko-feministak Mexikon.
Elebiduna
Antolatzailea: SETEM Hego Haizea

15: Erakusketa

Emakume donostiarrak 1870-2015. "Emakumeen emanzipazioa lortzeko bide luzea" erakusketa honen bigarren zatia da.
Antolatzailea: Plazandreok eta "Emakumeak eta Hiria" Foroa

Urtarrila

20: Danborrada feminista

Donostiako egunean I. danborrada feminista.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

22: Hitzaldia

“Nork eta zein baldintzatan ekoizten du gure arropa? Erdialdeko Ameriketako makiletatik brodatzaileetara” izenburupean, solasaldia El Salvadorreko Mujeres Transformando elkartearekin.
Dinamizatzailea eta antolatzailea: SETEM Hego Haizea

26: Zineforum feminista

Paulina
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Otsaila

9: Asanblada feminista

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

16: Zineforum feminista

Laurence Anyways
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



25: Liburu aurkezpena

Viaje al centro del corazón. Idazlea: Leticia Martínez-Alcocer (Isiltasuna hautsiz elkartearen sortzailea).
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



: Hitzaldia

Isiltasuna hautsiz elkartearen aurkezpena. Indarkeria sexuala jasan duten emakumeen elkartea.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Martxoa

2: Liburu aurkezpena

Palestinako emakumeen mugimenduaren historia.
Palestinar emakumeek, hainbat borroketan jokatu duten paper garrantzitsuaz hitz egiten digu egileak, borroka antikolonial, abertzale eta emakumeen eskubideen aldekoetan hain zuzen ere.
Gaztelania
Egilea: Mar Gijón Mendigutía
Antolatzailea: Biladi

4: Hitzaldia

Denboraren banku feminista.
Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

6: Lilaton

Lilaton: 5.000 emakume lasterka Donostiako kaleetan.

8: Manifestazioa

Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna.

11: Liburuaren aurkezpena

Hezkuntza, memoria eta emakume euskaldunen historia
Parte hartzaileak: Julia Monge (Intxorta 1937 kultur elkarteko kidea), Begoña Gorospe (Idazlea), Karmele Bujan (Idazlea).
Antolatzailea: Intxorta Kultur Elkartea

12: Xake

Emakumeen arteko xake torneoa.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

12: Festa

Donostiako Emakumeen Etxeko 6. urtemugaren festa.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

14: Solasaldia

Tertulia eta osatzearen inguruko saioa Lorena Cabnalekin, Guatemalako feministaren komunitarioa eta militante maia-xinka.
Elebiduna
Antolatzailea: Euskal Herriko Bilgune Feministaren

15: Zineforum feminista

Una segunda madre.
Gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

16: Hitzaldia

Feminismo askotarikoak Latinoamerikan. Rosa Posa feminista eta LGTBI eskubideen aldeko aktibista lesbiana.
Gaztelania
Antolatzaileak: Udaleko Lankidetza eta Berdintasun Sailak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

1-31: Erakusketa

Emakume donostiarrak 1870-2015. Emakumeen emanzipazioa lortzeko bide luzea.
Antolatzaileak: Plazandreok eta "Emakumeak eta Hiria" Foroa.

Apirila

8: Hitzaldia

Generazioekin lotutako indarkerien prebentzioa (ber) pentsatuz.
Gaztelania
Hizlariak: Sara Barrientos (Antropologoa eta Candela elkartearen sortzailea) eta Miriam Aleman (Filosofian lizentziatua eta Candela elkarteko kidea).

14: Hitzaldia

Sexismoa, sexu osasunarentzat gaitza: ikuspegi feministababes faktore gisa.
Elebiduna
Hizlaria: Eider Goiburu Moreno (Berdintasun teknikaria, Lahia- Nahiako kidea orain dela 13 urte).

19: Zineforum feminista

Sufragistas
Antolatzailea eta Dinamizatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

23: Xake

Emakumeen arteko xake txapelketa.
Antolatzailea eta Dinamizatzailea:
Emakumeen Etxea Elkartea

IItik uztailak IIra: Pintura erakusketa

Artista eta modeloa: Soraya Garcia - Sorayarte.

Maiatza

17: Zineforum feminista

Nadie quiere la noche.
Antolatzailea eta Dinamizatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

20: Aliantza feministak eta partekatutako esperientziak

Donostiako Emakumeen Etxea, Madrilen.
Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea, Feminicidio.net.

23: Elkarrizketa

TTIP - Latinoamerikako feministekin elkarrizketa: emakumeak akordio ekonomikoen aurrean.
Hizlariak: Graciela Rodriguez (Equit Institutuko koordinatzailea), Ticiana Studart (REMTE - Red Latinoamericana de Mujeres Transformando la Economía) eta Emakumeen Mundu Martxa - EMM.
Antolatzailea: Mugarik Gabe
Laguntzailea: Euskal Herriak TTIP-ari ez

27: Kbaret

Kintsugi: Emakumeen Etxeko Mugimendu Taldearen eskutik.
Antolatzailea: Asvinenea.

28: Donostiako emakumeen ogibideak

Jane Jacobs. Tabakaleran.
Antolatzaileak: Emakumeak eta hiria foroa, Berdintasun Saila.

30-31: Topaketa interkulturala

Arrazakeriari aurre egiten feminismo deskolonialaren bitartez.
Gaztelania.
Formatzailea: Yuderkis Espinosa (Feminista Dominikarra, pentsalaria, aktibista, saiogile eta irakaslea).
Antolatzailea: Haurralde Fundazioa
Laguntzailea: Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren Saila

Ekaina

2: Tailerra

Planto egiten dugu: berdez tintatuz. Goazen baratzea balkoian bertan egitera.
Elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

7-10: Jardunaldiak

Indarkeriaren normalizazioa: "EZ" esaten ikasi.
- Zure erasoa ez dadila nire lotsa izan (Norma Vázquez).
- Ehizatutako ehiztaria (Alicia Murillo).

Gaztelania
Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea eta Erasoen aurkako Batzordea

8: Solasaldia

Alianzas y estrategias feministas por una vida libre de violencias en El Salvador.
Gaztelania
Hizlaria: Vilma Vaquerizo (El Salvadorreko ORMUSAko ordezkaria -Organización de Mujeres Salvadoreñas-).
Antolatzailea: Bakerako Lankidetza Batzarra

9: Liburu aurkezpena

"Comando Je !" (**de Güenorras**).
Gaztelania
Idazlea eta aurkezlea: Alicia Murillo Ruiz.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

14: Zineforum feminista

Carol
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

22: Dokumentala

Gora Gasteiz izan kolore.
Elebiduna
Zuzendaria: Beñat Fontaneda Elguea
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

25: Liburu aurkezpena

"Ciutat morta. Crónica del caso 4f."
La historia y otras historias. O cómo hacer memoria desde el feminismo.
Gaztelania
Antolatzailea: Medeak

Uztaila Abuztua

4: Liburu aurkezpena

Desiguales por ley.
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

7: Aurkezpena

Euskal Herriko ekonomia feministako eskolatxoen sistematizazioaren aurkezpena
Gaztelania
Antolatzailea: Mundu bat

16 (gaztelaniaz), 23 (euskaraz): Tailerra

Emakumeentzako autodefentsa feminista.
Formatzaileak: Maitena Monroy eta Emagin Elkartea
Antolatzailea: Berdintasun Bulegoa Donostiako Udala.

19: Zineforum feminista

La chica danesa.
Antolatzailea eta Dinamizatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

9, 10, 11 (gaztelaniaz) eta 23, 24, 25 (euskaraz): Ikastaroa

Emakumea eta umorea.
Zergatik, zertaz eta nola egiten dugu barre.
Formatzailea: Beatriz Egizabal
Antolatzailea: Berdintasun Bulegoa Donostiako Udala

Eskerrik asko
Emakumeen Etxea egiten
duzuen guztioi!